

IRAKASKUNTZARAKO DISEINU UNIBERTSALA (IDU-UDL)

GIZA ANATOMIAREN IRAKASKUNTZAN

Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuaren kodea: i-324-27

Koordinatzailea eta partaideak: Izaskun Elezgarai (koordinatzailea), Jon Egaña-Huguet, Rafael Sarria, Jon Jatsu Azkue, Irantzu Rico-Barrio

Neurozientziak Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Euskal Herria.

Sarrera

Anatomiaren irakaskuntza ez dago gaur-gaurkoz pedagogia-eredu jakin batean oinarrituta, mende askoan luzatu den tradizioan baizik. Medikuntza hezkuntza modernoaren erronkei aurre egiteko eta ikasleen konpromisoa hobetzeko, Universal Design for Learning (UDL) printzipioetan oinarritutako irakaskuntza-berrikuntzako proiektu bat diseinatu zen.

Berrikuntza-proiektua, zehazki, Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Graduko bigarren mailan irakasten den Giza Anatomia III irakasgaiaren saio praktikoetan inplementatu zen.

IDU-UDL ereduan, ikasleari eskaintzen zaizkion askotariko ikas-baliabideek aukera ematen diote informazioa iturri ezberdinetatik eskuratzeko eta bakoitzak modu kritikoan eta erabat pertsonalean integratzeko. Ikasle bakoitzak ahalegin kritikoa egin beharko du bere ikaskuntza estrategiari ondoen dagokion iturria aukeratzeko.



Metodologia



Ikastokiak

Saio praktiko bakoitzean 15 minutuko ikastoki-errotazioak egingo dira


- Gorpua¹
- Isolatutako erraiak²
- Belortzioak eta maketak³
- Anatomiako simulatzaile digitala⁴
- Irudi klinikoak⁵

Praktikako azken 15 minutuetan ikasleek modu askeko ikasketa tartea izango dute, beraien erabakiz, nahi duten ikastokira itzultzeko


SAIO PRAKTIKOA: Saio praktikoaren dinamika erakusten duen diagrama

OHAR TEKNIKOAK


- * 5 Ikastoki: bakoitzean 15 minutu (Guztira: 100 minutu)
- 8 ikasle-talde saio-praktiko bakoitzeko (talde bakoitzean: 5-6 ikasle)
- Jarraibide argiak egongo dira ikastoki bakoitzean
- Azken 15 minutuak: Modu askeko ikasketa




1 Monitoreek mahaikideak gidatzeko eta gorpua erabiltzeko azaltzeko 30 minutuko prestakuntza espezifiko jaso zuten praktika bakoitza baino lehenago




Autoebaluazioa- ikastokiaren azken 5 minutuetan egingo dute



Irakaslearen feedback-a eta zuzenketak: hurrengo saio praktikoan jasotzen dute txostena




Simulagailu digitalean nabigazioa-gida bat dago saio praktiko bakoitzerako.



Irakaslearen feedback-a eta zuzenketak: hurrengo saio praktikoan jasotzen dute


Proiektuaren balorazioa

Guztira 172 ikaslek parte hartu zuten berrikuntza-proiektuan. Ikaskuntzaren emaitzak eta ikasleen gogobetetzea Likert-escala inkestan eta azterketan emaitzen bitartez ebaluatu ziren. Oro har, emaitzek, ikasleen konpromisoa eta gogobetetasun handia adierazi zuten. Horrez gain, ikas-baliabideen aniztasunak haien ulermen anatomikoan lagundu zuen.




Anatomia saio praktikoetan inplementatutako IDU metodologiaren ebaluazio orokorra. Taulak, Likert eskalaren item bakoitza zer puntuazioarekin baloratu zen jasotzen du (1 = ez nago batere ados 5 = erabat ados). Proiektu honek harrera ona eta gogobetetze-maila handia izan du ikasleen artean. Izan ere, ikasleen % 78,7k eta ikasleen % 87,6k 4 edo 5 puntu hautatu zituzten praktika saioen alderdi gehienak ebaluatzeko unean.

Zein ikastokira bueltatu ziren ikasleak praktika saioaren azken 15 minutuko denbora tartean?




Ikasleak maiz itzuli ziren irudi klinikoaren ikastokira. Baita maketa eta belortzioen ikastokira ere. Esleitutako 15 minutuko denbora-tartea ez zen nahikoa izan ikastoki bakoitzeko zereginak betetzeko.

Zein saio-praktiko mota nahiago duzu: IDU ereduan oinarritutakoa (GAIII) edo beste anatomia ikastaro batzuetan erabiltakoa (GA I, II, IV)?



Ikasle guztiek (% 100) giza anatomiako beste irakasgai batzuetan erabiltakoa ikuspegi tradizionala baino, IDU-ean oinarritutako irakaskuntza-metodologia nahiago zutela adierazi zuten.

Azterketa teorikoan eta praktikoan lortutako puntuazioen alderaketa bi ikasturte akademikoren artean: 2023 - 2024 (IDU-ik gabe) eta 2024 - 2025 (IDU-rekin)



2023-2024 ikasturtean Wilcoxon probak puntuazio baxuagoa erakutsi zuen atal praktikoan atal teorikoan baino (p = 0,0001). 2024-2025 ikasturtean, ordea, ez ziren ezberdintasunik eman atal teoriko eta praktikoaren artean (p = 0,0696). Bestalde, ez zen taldeen arteko desberdintasunik aurkitu 2 ikasturteen artean (Mann-Whitney, e.e) nahiz eta 2024-2025 azterketa praktikoari, ale isolatuak eta interpretazio-trebetasun handiagoak eskatzen zituen irudi klinikoak gehitu

5 ikastokiek jasotako balorazioaren alderaketa



Ikaslearen feedback-a eta ondorioak

IDU metodologiaren izaera dinamikoa eta aktiboa praktika saioen ardatz nagusia izan zen. Ikasleek bat datoz ikas-baliabideen aniztasunak haien ulermen anatomikoan sakontzen laguntzen duen tresna eraginkorra izan dela. Eraldaketa pedagogiko honek anatomian oinarritutako hezkuntza eredu inklusiboagoa dakar eta ikasleen autonomia, motibazioa eta ikaskuntza sakonagoa sustatzen ditu.